



Urarekin jolastu eta gero... zer?




HELBURUAK

- Uraz gozatzea.
- Ingurunearekiko interesa eta jakin-mina piztea.
- Ura aurrezteko jarrerak sustatzea.

MATERIALA

- ◆ Harri bat, hosto bat, pilota bat, lapitz bat, plastikozko botila bat, iltze bat, etab.

Flotatzen du ala ez?

	 bai	 ez
 lapitza		
 harria		
 plastikozko botila		
 hostoa		
 iltzea		
 pilota		

Jardueraren garapena

Urarekin jolas batzuk eta berari buruzko oharpen batzuk egin ondoren, honako esperimentu hau proposatuko dugu: uretan zein gauzak flotatzen duen eta zeinek ez begiratzea.

Esperimentua egin baino lehen, euren iritzia adierazteko fitxa bete egin behar dute.

Esperimentuko proba bakoitza egin ondoren, berriro beteko dute fitxa: oraingoan, errealitatean gertatzen dena aintzat hartuz.

Azkenik, taldeka, esperimentua egin baino lehen uste zutenaren eta emaitzak lortu ondoren pentsatzen dutenaren arteko diferentziak zehaztuko dituzte.

Planteatutako galderen erantzunak arrazoitzen saiatuko gara; esaterako: zergatik hondoratzen da harria, eta hostoa ez?

Azkenik, erabilitako urarekin zer egin daitekeen galdetuko diegu: landareak ureztatzeko erabiltzea proposatuko diegu.